


Balorezko Proposamena

Gure proiektua, hiru gizarte erantzukizun korporatibo betetzen dituen gimnasio bat martxan jartzea du helburu, Espainian, orain arte, inork bezalakorik eskaintzen ez duena. Honi esker, gure bezeroek, gaur egun kezkatzen gaituzten hiru arazo modu erraz batean konpontzen (edo gutxienez murrizten) laguntzeko aukera izango dute, kirola egiterakoan gehiago motibatu egingo dituenak.

Batetik, Gimnasioaren bazkideek, jarduera fisikoaren bidez elektrizitatea sortzen dituzten [kirol makinetan](#) (egin klik informazio gehiago jakiteko) aritzeko aukera izango dute, ondoren generadore batean gorde ahal izango dena, eta geroago gimnasioaren behar elektrikoak asetzeko balio izango zaiguna. Honi esker, hain kaltegarria bilakatzen ari diren kutsadura mailak murriztuko ditugu, elektrizitatea ekoizteko prozesuan, askatutako karbono dioxidoaren ekoizpena gutxituko litzatekeelako eta bide batez, gure faktura elektrikoetan aurreztuko genuke.



IRUDIA: <https://www.gosportsart.com/wp-content/uploads/2018/06/How-it-works-01.png>

Gure balioa kualitatiboa da, azken batean haien egoera fisikoa mantentzearen truke, ingurumena zaintzen laguntzen ari direlako. Era berean, beste herrialde azpigaratuetako jendeari oinarritzko osasun-eskubideak eskaintzen ari dizkiete hilero ordaindutakoaren zati batekin, beste gimnasioetan ez bezala.

Aipatzekoa da ere teknologia berriei garrantzi handia emango diegula, osasun aplikazioekin, *smartphonekin* zein *smartwatch*-ekin bateragarriak diren makinak zein zerbitzuak eskainiz.